



ADENOIDEKTOMIA (BEGETAZIOAK)/MIRINGOTOMIA ETA DRAINATZEA (BELARRIAK)

Ebakuntza osterako zaintza eta gomendioak

- Likido hotzak hartzea komeni da (ura, zukuak, esnea, fruta-irabiatuak, etab.).
- Afaria hotza eta arina izan behar da (jogurta, izozkia, *petit-suisse*, salda, purea, etab.).
- 3 egunez dieta biguna egingo du, epela edo hotza (pureak, flanak, jogurta, moldeko ogia, arrautzesnea, tortilla, fruta-irabiatuak, etab.) eta ondorengo egunetan ohiko dieta egiten hasiko da.
- Etxean egongo da bizpahiru egunez, atsedeen erlatiboan (ez da beharrezkoa ohean egotea). Ebakuntza egin eta 4. edo 5. egunean eskolara itzuli ahal izango da.
- Ebakuntza osteko 15 egunetan, haurrak ez du ahalegin fisiko handirik egingo: bizikletan ibiltzea, futboleko jokatzeko, jautsiak eta korrika aritzea, eta ikastetxean ez da gorputz hezkuntzako eskoletara joango. Helduek ez dute esfortzua beharrezkoa den ariketarik egingo.
- Ez da luzaz egongo eguzkitan.
- Belarrietan egin badiote ebakuntza, ez dira bustiko, harik eta medikuak (ORL) berrikuspen-kontsultetan agindu arte.
- Datozen egunetan hartu tenperatura arratsalde-gau aldean eta goizean.
- Sendagairen bat agindu badizuete, alta hartzean adierazi dizueten moduan hartu.

LARRIALDIETARA JOATEKO ARRAZOIAK:

- Odol-jarioa badario belarritik, sudurretik edo ahotik.
- Min bizi edo iraunkorra badu, aringarriekin kentzen ez dena.
- 38 °C-ko sukerra edo altuagoa badu.
- Behin eta berriro oka egiten badu.

